

GAZTELEKUKO XXIII. XAKE TXAPELKETA

(2017ko urriaren 28an, Oñatin)

Lekua:

Oñatiko Verduri Hall Gaztelekua (Oñati, Gipuzkoa).

Joko era:

Sei txandako sistema suitzarra.

Joko erritmoa:

15 minutu.

AZKENEKO SAILKAPENA.

- 1) **Aritz Idiazabal Troyas (Nafarroa, Euskal Herria) (2.015) – 5 puntu.**
- 2) **Mikel Huerga Leache (Nafarroa, Euskal Herria) (2.449) – 5 puntu.**
- 3) **Alejandro Franco Alonso (Gipuzkoa, Euskal Herria) (2.440) – 5 puntu.**
- 4) Aitor Alcaide Luque (Gipuzkoa, Euskal Herria) (2.057) – 5 puntu.
- 5) Josu Tornay Gomez (Gipuzkoa, Euskal Herria) (2.092) – 4'5 puntu.
- 6) Fabian Dario Pena Duarte (Kolonbia) (2.197) – 4 puntu.
- 7) Eihartze Buiza Prieto (Bizkaia, Euskal Herria) (2.022) – 4 puntu.
- 8) Mikel Barquero De la Cruz (Gipuzkoa, Euskal Herria) (1.744 Euskal elokoa) – 4 puntu.
- 9) Cesar Montolio Benedicto (Gipuzkoa, Euskal Herria) (1.803) – 4 puntu.
- 10) Aritz Izagirre Alsua (Gipuzkoa, Euskal Herria) (1.904) – 4 puntu.

Orotara, 38 jokalaria.

ARITZ IDIAZABAL GARAILE, MIKEL HUERGAREN AURRETIK.



Aritz Idiazabal Troyas.

Xakelari nafarren jarduna nahiko ona izan zen torneo honetan. Bi ziren eta lehenengo bi postuetan amaitu zuten. Mikel Huerga lehenengo zerrendaburua zen, baina Aritz Idiazabal zazpigarrena zen. Beraz, balantzea ona izan zen.

Ez hain ona Mikel Huergarentzat. Beretzat nolabait porrota izan zen bigarren postua. Alejandro Francoren aurka galdu zuen azkeneko partida eta txapelketa ere bai, taldekide duen Aritz Idiazabalentzat izan bazen ere. Iaz Mikel Huergak irabazi zuen torneo hau.

Aritz Idiazabal Troyasek 25 urte ditu, Antsoain Xake Klubean jokatzen du eta xakean gehiago murgiltzeko akuilu izanen du garaipen hau.

2017-10-28.

Iturria: “<http://chess-results.com/tnr307551.aspx?lan=2&art=1&wi=821&turdet=YES>”.